Igandeetako edo jaiegunetako plusa, garrantzi bereziko jaiegunetako plusa eta erabilgarritasun edo zaintza lokalizatuko plusa 4. eranskinen jaso dira, horrelakoen barruan benetan lan egindako egun bakoitzeko ordaindu beharreko zenbatekoekin eta hala badagokio, baita egunen edo orduen araberrako konpentsazioa ere.

2009rako, igandeetako eta/edo jaiegunetako plusa eguneko soldataren %10ekoa izango da kategoria bakoitzeko (Hitzarmenean jasotako hileko oinarritzko soldata/30).

2009rako, garrantzi bereziko jaiegunetako plusa eguneko soldataren %10ekoa (Hitzarmenean jasotako hileko oinarritzko soldata/30) eta egun libre batekoa izango da kategoria bakoitzeko.

2009rako, erabilgarritasun edo zaintza lokalizatuko plusa honako hau izango da kategoria bakoitzeko: eguneko soldataren %5 (Hitzarmenean jasotako hileko oinarritzko soldata/30), eta horretaz gain, lanegunetan benetan lan egindako denboraren %100 edota jaiegunetan edo gaueetan benetan lan egindako denboraren %125 libre izatea.

2010eko zenbatekoei dagokionez, aurreko urteko zenbateko ekonomikoak 2009an EAEn zegoen KPIarekin handituko dira, denboraren araberrako konpentsazio berberekin.

2011ko zenbatekoei dagokionez, aurreko urteko zenbateko ekonomikoak 2010ean EAEn zegoen KPIarekin handituko dira, denboraren araberrako konpentsazio berberekin.

KPI < 0 salbuespenezko kasuetan, berriz, KPI = 0 erabiliko da kalkuletarako.

35. artikulua.—Aldi Baterako Ezintasuneko aldiaren kobratzea

Langile-gertakariak eragindako aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden langileek beren oinarri arautzailearen %100 osatzeko behar duten osagarria jasoko dute lehen egunetik hasita, baja-egoeran emandako aldiaren izandako soldata-igoerak barne.

Ohiko gertakariak eragindako aldi baterako ezintasuneko egoeran dauden langileek lehen bederatzik hilabeteetan beren oinarri arautzailearen %90 osatzeko behar duten osagarria jasoko dute lehen egunetik hasita, baja-egoeran emandako aldiaren izandako soldata-igoerak barne.

36. artikulua.—Dieten ordainketa

Langileak betetzen dituen eginkizunak direla medio, noizean behin langileak bere ibilgailua erabili behar badu, kilometro bakoitzeko 0,28 euro jasoko ditu. Horretaz gain, autobide-gastuak eta hainbat hiritan eta udalerritan ezarritako aparkaleku zainduaren gastuak ordainduko zaizkio.

Plus hori ordaintzeko, erakundeak agindu beharko dio langileari bere ibilgailua erabiltzeko. Bidaia garraibide publikoetan egiteko aginduz gero, gastua ordainagiria erakutsi ondoren ordainduko da, baina bidaiaren gastua 15 euro baino gehiagokoa baldin bada, erakundeak diru hori aurreratu beharko du.

Bidaia beste langileekin batera egiten den kasuetan, kilometrajeari dagokion zenbatekoa autoaren jabeari bakarrik ordainduko zaio.

V. TITULUA

LIZENTZIAK ETA ESZEDENTZIAK

I. KAPITULUA

LIZENTZIAK

37. artikulua.—Ordaindutako lizentziak

1. Langilea, alde aurretik abisatuta eta justifikatuta, justifikatutako larrialdiaren kasuan izan ezik, lanera etorri gabe gelditu ahal izango da, lansaria jasotzeko eskubidearekin, honako arrazoi hauetako batengatik eta honako denbora honetarako:

El plus de domingos y/o festivos, sí se percibirá por los festivos efectivamente trabajados y no se percibirá el plus de Domingos cuando ya se perciba el Plus de turnicidad y uno de los turnos/horarios rotativos sea el de fin de semana.

El plus de disponibilidad y/o guardia localizada es incompatible con percibir cualquier complemento de responsabilidad.

Los pluses de domingos y/o festivos, festivos de especial significación y de disponibilidad o guardia localizada se han recogido en el Anexo 4, con cantidades a abonar por cada día de trabajo efectivo bajo los mismos y en su caso también la compensación en días u horas.

Para el año 2009, el plus de domingos y/o festivos, corresponde para cada categoría al 10% del salario diario (Salario base mensual convenio/30).

Para el año 2009, el plus de festivos de especial significación, corresponde para cada categoría al 10% del salario diario (Salario base mensual convenio/30) y a librar 1 día.

Para el año 2009, el plus de disponibilidad o guardia localizada, corresponde para cada categoría al 5% del salario diario (Salario base mensual convenio/30) y a librar el 100% del tiempo efectivo trabajado en laborable o al 125% del tiempo efectivo trabajado en festivos o noches.

Los importes del año 2010 corresponderá a incrementar las cantidades económicas del año anterior con el IPC de la CAPV del año 2009 y las mismas compensaciones en tiempo.

Los importes del año 2011 corresponderán a incrementar las cantidades económicas del año anterior con el IPC de la CAPV del año 2010 y las mismas compensaciones en tiempo.

En el supuesto excepcional de IPC < 0, se utilizara para los cálculos IPC = 0.

Artículo 35.—Cobro durante el período de I.T.

Los trabajadores y trabajadoras en situación de incapacidad temporal por contingencias profesionales recibirán el complemento necesario para completar el 100% de su base reguladora, desde el primer día, incluidos los incrementos salariales producidos en el período de baja.

Los trabajadores y trabajadoras en situación de incapacidad temporal por contingencias comunes y durante los primeros nueve meses, recibirán el complemento necesario para completar el 90% de su base reguladora, desde el primer día, incluidos los incrementos salariales producidos en el período de baja.

Artículo 36.—Pago de dietas

El trabajador o trabajadora que por razones del ejercicio de sus funciones deba desplazarse esporádicamente con su vehículo, percibirá 0,28 euros/km y los costes de autopista y aparcamiento vigilado establecido en diversas ciudades y municipios.

Para que se proceda al abono de dicho plus será necesario que la organización haya encomendado el desplazamiento con medios propios. Si el transporte lo encomendase por medios públicos se abonará su coste previo justificante del mismo, salvo que el desplazamiento tenga un coste superior a 15 euros en cuyo caso la organización adelantará el coste del mismo.

Si el desplazamiento se produce con otros trabajadores o trabajadoras la cantidad correspondiente al kilometraje se abonará únicamente al que aporte el vehículo.

TÍTULO V

LICENCIAS Y EXCEDENCIAS

CAPÍTULO I

LICENCIAS

Artículo 37.—Licencias retribuidas

1. Los trabajadores y trabajadoras previo aviso y justificación, salvo caso de urgencia justificada, podrá ausentarse del trabajo con derecho a remuneración, por alguno de los motivos y por el tiempo siguiente:

a) Langilea ezkontzen bada, edota izatezko bikotearen kasuan, erregistro ofizialeko egiaztagiria aurkeztu ondoren, hamabost egun. Baimen hori ezkondu aurretik edo ondoren baliatu ahal izango da.

b) Seme-alabaren jaiotzaren edo adopzioaren kasuan, lau egun. Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko senitartekoaren edota izatezko bikotekidearen gaitotasun larriaren edo heriotzaren kasuetan, hiru lanegun. Arrazoi hori dela-eta, langileak 180 km-tik gorako bidaia egin behar badu, bi egun gehiago emango zaizkio. Egun gehiago behar izanez gero, oporraldiari kenduta baliatu ahal izango ditu langileak, horretarako baimena eskatu ondoren, betiere behar bezalako antolamenduak eta zerbitzuaren funtzionamendu egokiak ahalbidetzen badute.

c) Lanegun bat ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik.

d) Beharrezkoa den denbora nahitaezko betebeharrak publiko eta pertsonal baterako. Hitzarmenaren ondorioetarako, nahitaezko betebeharrak publiko eta pertsonaltzat honako hauek hartuko dira:

— Nortasun-agiri nazionala, bizitzeko eta lanerako baimena, gidabaimena, pasaporte eta ziurtagiriak, erakunde ofizialeko erregistroak eta abar egitea eta berritzea.

— Epaitegi-tako, polizia-etxe-tako, gobernu zibiletako edo antzekoetako zitazioak.

— Ordezkaritza-kargu publikoa betetzea. Aipatutako betebeharrak lanorduen %20 baino gehiago betetzea eragozten badu hiru hilabeteko denbora-tartean, enpresak Hitzarmen honetako 44. artikuluan araututako eszedentzia-egoerara igaro ahal izango du eraginpeko langilea.

— Langilea bera edo lehen mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko senitartekoarekin medikuaren kontsultara joateko, behar den denbora, betiere kontsultak sistema publikoan edo horren itunpeko zentroetan egiten badira.

— Eginkizunei dagokienez eskumena duen erakunderen batek ofizialki aitortutako hondamendiek langilearen ohiko bizilekua osatzen duten ondasun higiezinetan eragindako kalteei aurre egiteko.

e) Hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko senitartekoaren ezkontza-eguna.

f) Azterketa ofizialak egiteko behar adina denbora, eskubide horretaz baliatzeko benetako aukera duela bermatuz.

g) Eginkizun sindikalak edo langileen ordezkaritzari dagozkionak betetzeko, legez eta Hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.

2. Haurdun dauden langileak lanera etorri gabe gera daitezke jaiotze aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko azterketa teknikoak egitera joateko behar duten denboraz, eta kobratzeko eskubidea izango dute, erakundeari aldeztu aurretik jakinarazten badiote eta azterketa horiek ezinbestean lanaldiaren barruan egin behar direla justifikatzen badute.

3. Egun osoetako lizentzia eta baimen guztiak lanaldi osoak izango dira, lanaldia dena delakoa izanik.

4. Langileek edonolako lizentzia edo/eta baimena behar badute eta gaueko txandan lanean ari badira, aurreko edo hurrengo gaua aukera dezakete.

EAEn aplikatu behar den legediari jarraiki, ezkondu direnek dituzten onura aitortu berberak izango dituzte bizikideek.

38. artikulua.—*Ordaindu gabeko lizentziak*

Urtebetetik gorako antzinatasuna duen langile orok eskatu ahal izango du soldatarik gabeko 30 eguneko baimena urtero. Eskaera hori 15 eguneko aurreabisuarekin egin badu, baimena eman beharko zaio, betiere langileen %5etik gora baimen mota hori aldi berean baliatzen ari ez bada.

a) Quince días en caso de matrimonio o parejas de hecho previa justificación en registro oficial, que podrá disfrutar con anterioridad o posterioridad a su celebración.

b) Hasta cuatro días naturales en los casos de nacimiento o adopción de hijo/a y hasta tres días laborables en los casos de enfermedad grave o fallecimiento de parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, o pareja de hecho. En el supuesto de que el trabajador o trabajadora necesite hacer un desplazamiento, a tal efecto, superior a 180 km., el plazo se verá ampliado en dos días. Podrán ampliarse estos días descontándolos de las vacaciones, previa solicitud del trabajador o trabajadora y siempre que lo permita la adecuada organización y buen funcionamiento del servicio.

c) Un día laborable por traslado del domicilio habitual.

d) Por el tiempo indispensable, para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público y personal. A los efectos del Convenio, se consideran deberes inexcusables de carácter público y personal, entre otros los siguientes:

— Expedición y renovación del documento nacional de identidad, permiso de residencia y trabajo, carné de conducir, pasaporte y certificados, registro de organismos oficiales, etc.

— Citaciones de juzgado, comisarías, gobiernos civiles o similares.

— Ejercicio de cargo público de representación. Cuando el cumplimiento del deber referido suponga la imposibilidad de la prestación del trabajo debido en más del 20% de las horas laborales en un período de tres meses, podrá la organización pasar al trabajador o trabajadora afectado a la situación de excedencia regulada en el artículo 44 del presente Convenio.

— El tiempo imprescindible para asistir a consulta médica, el trabajador o trabajadora o familiares hasta primer grado de consanguinidad o afinidad, siempre que sea en el sistema público o centros concertados con éste.

— Para atender los daños producidos por catástrofes, reconocidas oficialmente mediante entidad funcionalmente competente, en los bienes inmuebles que constituyan la vivienda habitual del trabajador o trabajadora.

e) El día de la ceremonia de matrimonio de familiares hasta el tercer grado de consanguinidad o afinidad.

f) Por el tiempo necesario para realizar exámenes oficiales, garantizando siempre la posibilidad efectiva de ejercitar dicho derecho.

g) Para realizar funciones sindicales o de representación de personal, en los términos establecidos legalmente y en este Convenio.

2. Las trabajadoras embarazadas tendrán derecho a ausentarse del trabajo, con derecho a remuneración, para la realización de exámenes prenatales y técnicos de preparación del parto, previo aviso a la organización y justificación de la necesidad de su realización dentro de la jornada de trabajo.

3. Todas las licencias y permisos de días completos, comprenderán el total de la jornada laboral sea cual sea ésta.

4. Cuando se necesite licencia y/o permiso de cualquier tipo y se esté trabajando en período nocturno, podrá el personal optar por la noche anterior o posterior.

De conformidad con la legislación de aplicación en la CAPV, los convivientes serán equiparados en los beneficios reconocidos a las parejas que hayan contraído matrimonio.

Artículo 38.—*Licencias no retribuidas*

Todo el personal con más de 1 año de antigüedad, podrá solicitar hasta 30 días de permiso sin sueldo por año, que deberá serle concedido si la petición se hace con un preaviso de 15 días y siempre que no esté disfrutando simultáneamente de este tipo de permiso más del 5% del personal.

Idatz-zati honetan azaltzen diren lizentziak hondamendi humanitario gisa ezarritako zona batera joateko ematen bazaizkie langile espezializatuak, eta lekualdatze hori modu antolatuan eta baimendutako erakunde humanitarioaren bitartez gauzatzen bada, ez da 15 eguneko aurretiaz jakinarazi behar.

39. artikulua.—*Edoskitzeagatiko etenaldiak eta lanaldiaren murrizketa*

Langileak lanean ordubeteko geldialdirako eskubidea izango du eta ordu erdiko bi zatitan bana dezake, hamar hilabetetik behar-akoa den seme edo alabaren edoskitzerako erabiltzen bada. Geldialdiaren edo lanaldiaren etenaren orde, ohiko lanaldia ordubetez murriz dezake langileak, lanaldiaren hasieran edo bukaeran, hark aukeratzen duen bezala.

Adierazitako etenaldia edo murrizketa ordaindu egingo da, eta edoskitze artifizialaren kasuan, bi ezkontideetatik edozeinek eskatu ahal izango du; nolahi ere, bi ezkontideek erakunde berean lan egiten badute, ezkontidetako batek bakarrik baliatu ahal izango du.

Edoskitzeagatiko baimenaren ordu guztiak metatu ahal izango dira eta etenik gabe baliatu ahal izango dira amatasunagatiko baimena amaitutakoan.

Martxoaren 23ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, erditze multiplearen kasuan edoskitzeagatiko denbora proportzionalki luzatu ahal izango da.

40. artikulua.—*Amatasuna eta Aitatasuna*

Familiako Bizitza eta Lana Bateragarri bihurtzeari buruzko 39/1999 Legeak eta Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatutakoari atxikiko zaizkio Hitzarmen honen eraginpeko erakundeak.

1. Amatasuna:

Emakumezko langileek ordaindutako 19 aste hartzeko eskubidea dute erditzen dutenean (21 aste erditze multiplea izanez gero); emakumeak nahi bezala bana ditzake aste horiek, betiere sei aste erditzearen segidan hartzen baditu. Aitak eta amak, biek, lan egiten badute, amatasunagatiko atsedenaldira hasten denean, amak erabaki dezake aitak erditzearen ondorengo atsedenaldiaren segidako zati jakin bat hartzea, bai biek batera, edo amaren atsedenaldiaren ondoren, ama lanera itzultzeko garaian bere osasuna arriskuan jartzen den kasuetan izan ezik.

Amatasunagatiko lizentzia eta oporraldia aldi berean badira, ez dira irentsiko 28. artikuluan azaltzen diren oporrak.

Haurdunaldiaren ondoriozko lizentzia-egoeran dauden langileek beren lansariaren %100 jasoko dute.

Haurdunaldian edo edoskitzealdian arriskuren bat dagoelako kontratua eteten bada, erakundeak behar den osagarria ordainduko du oinarri arautzailearen %100 osatu arte.

Langileak amatasun-baimenari dagokion denboraren zati bat baliatzeko eskubidea izango du, betiere indarreko legedian aurreikusitako baldintzetan.

2. Aitatasuna:

Seme edo alabaren jaiotza, adopzio edota etxean hartzearen kasuan, aitatasunagatiko baimena izateko eskubidea aitortzen da, amarenarekiko autonomoa; baimen hori segidako 13 eguneko izango da, eta hitzarmen kolektiboaren bitartez (37. artikulua, b) idatz-zatia) dagoeneko indarrean dagoen 4 eguneko baimenari gehituko zaio.

Jaiotza, adopzio edo etxean hartze multiplearen kasuan, bigarren seme edo alabatik aurrera 2 egun gehiago luzatuko da.

Beste gurasoaren amatasunagatiko baimenarekin batera baliatu daiteke, edo bestela, amatasunagatiko baimen hori amaitu ondoren; lanaldi osoetan edota partzialetan hartu ahal izango da bi kasuetan.

Erditzearen kasuan, hori beste gurasoari dagokio eksklusiboki.

Adopzio edota etxean hartzearen kasuetan, gurasoetako bati dagokio soilik, horiek aukeratzen duten bezala.

Cuando las licencias comprendidas en este apartado lo sean para desplazarse como personal especializado a una zona establecida como zona de desastre humanitario y el mismo se realice de forma organizada y a través de una organización humanitaria reconocida no será de aplicación los 15 días de preaviso.

Artículo 39.—*Pausas y reducción de jornada de lactancia*

El trabajador o trabajadora tendrá derecho a una pausa de una hora en su trabajo, que podrá dividir en dos fracciones de media hora cuando la destinen a la lactancia de su hijo menor de diez meses. Se podrá sustituir la pausa o interrupción de la jornada por una reducción de la jornada normal de una hora que, a su opción, la podrá aplicar al principio o terminación de la misma.

Dicha pausa o reducción será retribuida y en el caso de lactancia artificial puede ser solicitada por cualquiera de los cónyuges, si bien la opción sólo puede ser ejercida por uno de ellos en caso de que ambos trabajen en la misma organización.

Podrá optarse por acumular el total de horas de permiso por lactancia disfrutándolas de forma ininterrumpida a continuación de la suspensión por maternidad.

Según la LO 3/2007, de 23 de marzo, podrá incrementarse proporcionalmente el período de lactancia en el caso de parto múltiple.

Artículo 40.—*Maternidad y Paternidad*

Las organizaciones afectadas por este Convenio se atenderán a lo regulado en la Ley 39/1999 de Conciliación de la Vida Familiar y Laboral de las personas trabajadoras y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

1. Maternidad:

Las trabajadoras, por alumbramiento, tendrán derecho a 19 semanas retribuidas, 21 en caso de parto múltiple, distribuidas a opción de la interesada, siempre que seis semanas sean inmediatamente posteriores al parto. En el caso de que el padre y la madre trabajen, ésta, al iniciarse el período de descanso por maternidad, podrá optar por que el padre disfrute de una parte determinada e ininterrumpida del período de descanso posterior al parto bien de forma simultánea o sucesiva con el de la madre, salvo que en el momento de su efectividad la incorporación al trabajo de la madre suponga un riesgo para su salud.

La coincidencia de la licencia por maternidad con el período vacacional no supondrá la absorción de las vacaciones recogidas en el artículo 28.

Las trabajadoras en situación de licencia a causa de embarazo percibirán el 100% de su retribución.

En el supuesto de suspensión por riesgo durante el embarazo o la lactancia, la organización abonará el complemento necesario para completar el 100% de la base reguladora.

El trabajador o trabajadora tendrá derecho al disfrute a tiempo parcial del permiso por maternidad en los términos previstos en la legislación vigente.

2. Paternidad:

Se reconoce el derecho a un permiso por paternidad, autónomo del de la madre, de 13 días ininterrumpidos en los supuestos de nacimiento de hijo o hija, adopción o acogimiento, que se suma al permiso ya vigente de 4 días por convenio colectivo, artículo 37, apartado b).

En los supuestos de parto, adopción o acogimiento múltiple se ampliará en 2 días más por cada hija o hijo a partir del segundo.

Puede disfrutarse simultáneamente con el permiso por maternidad del otro u otra progenitora o una vez finalizado el mismo, y, en ambos casos, a tiempo completo o parcial.

En el supuesto de parto, le corresponde en exclusiva al otro u otra progenitora.

En los casos de adopción o acogimiento corresponderá, a su elección, a uno sólo de ellos.

41. artikulua.—Beren kabuz balia ezin daitezkeen adingabeak edo senitartekoak zaintzea

Legezko zaintza dela-eta, zortzi urte baino gutxiagoko haur bat edo ezindu fisiko, psikiko edo sensoriala (ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu) zaindu behar duen langileak lanaldia laburtzeko eskubidea izango du, lanaldiaren laburtzeak dirauen herena eta erdia bitarteko soldataren batez besteko gutxitzearekin. Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko senitartekoaren bat zaindu behar duen langileak eskubide bera izango du, baldin eta ahaide hori adinak, istripuak edo gaitotasunak eraginda ezin bada bere kabuz moldatu, eta ez badu ordaindutako jarduerarik betetzen.

Erakunde bi langilek ezin izango dute baimen hori aldi berean baliatu arrazoi berak eraginda. Langileak zehaztu beharko du lanaldilaburtzearen ordutegia eta bere ohiko lanaldira itzuli baino hamaibost egun lehenago jakinarazi beharko dio erakundearen zuzendaritzari.

42. artikulua.—Adopzioa eta etxean hartzea

Sei urte arteko adingabeak adoptatzearen edo etxean hartzearen kasuetan, baimena segidako hamasei astekoa izango da; epea bi aste gehiagokoa izango da bigarren hauraren ondorengo seme edo alaba bakoitzeko. Sei urtetik gorako adingabe bat adoptatu edo etxean hartuz gero ere baimen hau hartzeko eskubidea izango da, adingabea ezindua baldin bada edo bere egoera edo bizipenengatik, edo atzerrikoa izateagatik, gizarteratzeko eta familiara egokitzeko arazoak baldin baditu, betiere dagokion gizarte-zerbitzuak egiaz-taturik. Amak eta aitak lan egiten duten kasuan, baimena egoera horretan daudenek aukeratzaren dute bezala banatuko da. Biek aldi berean hartu ahal izango dute, edo bata bestearen ondoren, betiere etenik gabeko denboraldietan.

Adopzioagatiko edo etxean hartzeagatiko egoeran dauden langileek beren lansariaren %100 jasoko dute.

Nazioarteko adopzioaren kasuan, ordaindu gabeko beste baimen bat emango da, behar den denboraren arabera, eta adoptatutako hauraren jaioterriak horrelakorik eskatzen badu; hala eta guztiz ere, behar bezala justifikatu beharko da eta egoeraren behin-behinekotasuna behar den aurretiaz jakinarazi beharko da.

II. KAPITULUA
ESZEDENTZIAK

43. artikulua.—Nahitaezko eszedentzia

Nahitaezko eszedentzia honako kasu hauetan emango da:

- Lanera joatea eragozten duen ordezkari-tz-kargu publiko bat betetzeko izendatua edo aukeratua izatea.
- Probintziako edo goragoko eginkizun sindikalak betetzea, adierazitako kargua betetzen duen bitartean.
- Legez ezarritako beste edozein.

Eszedentzia mota honek eskubidea ematen du eszedentzia amaitu eta berehala lanpostura itzultzeko. Eszedentzia horiek guztiek eszedentzia hartzeko eskubidea ematen duen kargua edo eginkizun sindikalak amaitzen diren arteko indaraldia izango dute.

Eszedentzia horrek ez du ezein ordainsarirako eskubiderik ematen eta antzinatasunerako zenbatuko da. Eszedentzia idazki bidez eskatuko da beti, hartu baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez, salbu eta egiazta daitezkeen premia larriko kausak badira. Erakundeak ere idazki bidez erantzun beharko du bost eguneko epean. Eszedentzia-egoerak dirauen bitartean, lanpostu hutsa ordezkari batek beteko du. Titularra lanera itzultzen denean amaituko da ordezkariaren zeregina eta bukatutzat emango da lan-harremana. Era berean, langileak lanbide-heziketako ikastaroak egitera joateko eskubidea izango du.

Artículo 41.—Cuidado de menores o familiares que no pueden valerse por sí mismos

El personal que por razones de guarda tengan a su cuidado algún menor de ocho años o a una persona con discapacidad física, psíquica o sensorial que no desempeñe actividad retribuida, tendrá derecho a una reducción de la jornada de trabajo, con la disminución proporcional del salario entre, al menos, un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella. Tendrá el mismo derecho quien precise encargarse del cuidado directo de un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, que por razones de edad, accidente o enfermedad no puede valerse por sí mismo, y que no desempeñe actividad retribuida.

Este permiso no podrán disfrutarlo simultáneamente dos trabajadores del centro por el mismo sujeto causante. La concreción horaria de la reducción de jornada corresponde al trabajador o trabajadora, quien deberá pre avisar a la dirección de la organización con quince días de antelación la fecha en la que se reincorporará a su jornada ordinaria.

Artículo 42.—Adopción y acogimiento

En los supuestos de adopción y acogimiento de menores hasta seis años, el permiso tendrá una duración de dieciséis semanas ininterrumpidas, ampliables en el supuesto de adopción o acogimiento múltiple en dos semanas más por cada hijo a partir del segundo. Este permiso también se disfrutará en los supuestos de adopción o acogimiento de menores, mayores de seis años, cuando se trate de menores discapacitados o que por sus circunstancias y experiencias personales o que, por venir del extranjero, tengan especiales dificultades de inserción social y familiar, debidamente acreditadas por servicios sociales competentes. En caso de que la madre y el padre trabajen, el permiso se distribuirá a opción de los interesados, que podrán disfrutarlo de forma simultánea o sucesiva, siempre con períodos ininterrumpidos.

Los trabajadores y trabajadoras en situación de licencia derivada de adopción o acogimiento percibirán el 100% de su retribución.

En el caso de adopción internacional se concederá un permiso adicional no retribuido por el tiempo que fuera necesario por exigencia del país de origen del adoptado/a siempre que pueda justificarse debidamente y tras haber comunicado con la suficiente antelación la eventualidad de la situación.

CAPÍTULO II
EXCEDENCIAS

Artículo 43.—Excedencia forzosa

La excedencia forzosa se concederá por:

- Designación o elección para un cargo público representativo que imposibilite la asistencia al trabajo, bien por elección bien por designación.
- Ejercicio de funciones sindicales de ámbito provincial o superior mientras dure el ejercicio de dicho cargo.
- Cualquier otra que legalmente se establezca.

Este tipo de excedencia da derecho a reincorporación automática al puesto de trabajo una vez finalizada la misma y todas ellas tendrán vigencia hasta la extinción del cargo o las funciones sindicales que la motivan.

Dicha excedencia se entenderá concedida sin derecho a retribución alguna y computará a efectos de antigüedad. Se solicitará siempre por escrito con una antelación de al menos treinta días a la fecha de su inicio, a no ser por causas demostrables, de urgente necesidad, debiendo recibir contestación escrita por parte de la organización en el plazo de cinco días. Durante la situación de excedencia la vacante quedará cubierta por un/a suplente. Este/a cesará en su cometido, dando por finalizada su relación laboral en el momento de la incorporación del titular. Asimismo, el trabajador o trabajadora tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación profesional.

44. artikulua.—Senitartekoak artatzeko eszedentzia berezia

Langileek gehienez hiru urteko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute seme edo alaba bakoitza zaintzeko, bai norberarena zein adoptatua izan, nahiz behin betiko harrerako moduan edo adopzio-aurreko egoeran hartu, umearen jaiotegunetik hasita, edo epaileen edo administrazioaren erabakiaren egunetik hasita.

Urtebetetik gorakoa izango ez den eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute, halaber, beren kargura dagoen senitartekoren bat (bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunezkoa edo ezkontza-ahaidetasunezkoa) zaindu behar duten langileek, baldin eta senitartekoa, adinagatik, istripuren bat izan duelako edo gai-xorik dagoelako, bere kabuz baliatu ezin bada, eta ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu.

Beste eszedentzia bat hartzeko baimena ematen duen beste arrazoi bat sortuz gero, eszedentzia berriak amaiera emango dio langilea ordura arte baliatzen ari zenari.

Eszedentzia horrek ez du ezein ordainsarirako eskubiderik ematen eta antzinasunerako zenbatuko da. Eszedentzia idazki bidez eskatuko da beti, hartu baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez, salbu eta egiazta daitezkeen premia larriko kausak badira. Erakundeak ere idazki bidez erantzun beharko du bost eguneko epean. Eszedentzia-egoerak dirauen bitartean, lanpostu hutsa ordezkotzeko batek beteko du. Titularra lanera itzultzen denean amaituko da ordezkotzeko zeregina eta bukatutzat emango da lan-harremana. Era berean, langileak lanbide-heziketako ikastaroak egitera joateko eskubidea izango du.

Lehenengo urtean langileak lanpostua gordeta edukitzeko eskubidea izango du. Epe horren ondoren, talde profesional bereko edo kategoría baliokideren bateko lanpostu bat gordetzeko eskubidea izango du.

Nolanahi ere, langilea familia ugari bateko kide den eta egoera hori modu ofizialean onartuta dagoen kasuetan, gehienez 15 hilabetez gordeko zaio lanpostua kategoría orokorreko familia ugari bateko kide bada, eta kategoría bereziko familia ugari bateko kide bada, berriz, gehienez 18 hilabetez.

45. artikulua.—Eszedentzia bereziak

Eszedentzia bereziak honako kasu hauetan emango dira:

a) Lanbide-hobekuntzari buruzko jarduerak egiteko.

b) Zeregin humanitarioak betetzeko edo garapenerako lan-kidetzan jarduteko ospe handiko erakundeen esparruan, betiere langileak bost urteko antzinasuna badu erakundearen.

Langileak erakundearen jardun aktibo jarraituan bost urteko antzinasuna badu, eta eszedentzia berezia eskatzen badu, eszedentzia hori ez da hiru urtetik gorakoa izango eta ezin izango du beste eszedentzia bat hartu egiazko laneko hiru urte igaro arte, aurrekoa amaitu ondoren. Lehenengo bi urteetan lanpostua gordeta izateko eskubidea izango du, baina adierazitako epea igarotakoan lanera itzultzen denean, erakundearen dauden edo egon litezkeen kategoría bereko edo antzeko lanpostu hutsetan berriro ere sartzeko lehen-tasun-eskubidea gordeko zaio soilik.

Nolanahi ere, eszedentzia bereziak emango dira eta langileak ez du ezein ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango. Adierazitako aldia antzinasunerako zenbatuko da, salbu eta lanbide-hobekuntzari buruzko jarduerak egiteko eskatzen diren eszedentziak badira, eta hobekuntza horiek langilearen lanpostuarekin zerikusi ez badute.

Eszedentzia berezi oro idazki bidez eskatuko da beti, hartu baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez, salbu eta egiazta daitezkeen premia larriko kausak badira. Erakundeak ere idazki bidez erantzun beharko du bost eguneko epean. Eszedentzia-egoerak dirauen bitartean, lanpostu hutsa ordezkotzeko batek beteko du. Titularra lanera itzultzen denean amaituko da ordezkotzeko zeregina eta bukatutzat emango da lan-harremana. Era berean, langileak lanbide-heziketako ikastaroak egitera joateko eskubidea izango du.

Artículo 44.—Excedencia especial para atender a familiares

Los trabajadores y las trabajadoras tendrán derecho a un período de excedencia de duración no superior a tres años por atender al cuidado de cada hijo/a, tanto cuando lo sea por naturaleza, como por adopción, o en los supuestos de acogimiento, tanto permanente como pre adoptivo, a contar desde la fecha de nacimiento o en su caso de la resolución judicial y administrativa.

También tendrán derecho a un período de excedencia de duración no superior a un año, para atender al cuidado de un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad que por razones de edad, accidente o enfermedad no pudiera valerse por sí mismo, y no desempeñe actividad retributiva.

Cuando un sujeto causante diera derecho a un nuevo período de excedencia, el inicio de la misma dará fin al que en su caso viniera disfrutando.

Dicha excedencia se entenderá concedida sin derecho a retribución alguna y computará a efectos de antigüedad. Se solicitará siempre por escrito con una antelación de al menos treinta días a la fecha de su inicio, a no ser por causas demostrables, de urgente necesidad, debiendo recibir contestación escrita por parte de la organización en el plazo de cinco días. Durante la situación de excedencia la vacante quedará cubierta por un/a suplente. Este/a cesará en su cometido, dando por finalizada su relación laboral en el momento de la incorporación del titular. Asimismo, el trabajador o trabajadora tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación profesional.

Durante el primer año tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo. Transcurrido dicho plazo la reserva quedará referida a un puesto de trabajo del mismo grupo profesional o categoría equivalente.

No obstante, cuando el trabajador o trabajadora forme parte de una familia que tenga reconocida oficialmente la condición de familia numerosa, la reserva de su puesto de trabajo se extenderá hasta un máximo de 15 meses cuando se trate de una familia numerosa de categoría general, y hasta un máximo de 18 meses si se trata de categoría especial.

Artículo 45.—Excedencias especiales

Las excedencias especiales se concederá:

a) Para realizar actividades relativas a su perfeccionamiento profesional

b) Por misiones humanitarias o de cooperación al desarrollo en el marco de organizaciones de reconocido prestigio y siempre que el trabajador o la trabajadora tengan cinco años de antigüedad en la organización

Cuando el trabajador o trabajadora con un mínimo de cinco años de ejercicio activo continuado en la organización solicite una excedencia especial, dicha excedencia no podrá ser superior a tres años y no podrá optar a una nueva hasta transcurridos tres años de trabajo efectivo, después de agotada la anterior. Durante los dos primeros años tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo, transcurrido dicho plazo conservará sólo un derecho preferente al reingreso en las vacantes de igual o similar categoría a la suya que hubiera o se produjeran en la organización.

En cualquier caso, las excedencias especiales se entenderán concedidas sin derecho a retribución alguna aunque dicho período computará a efectos de antigüedad a excepción de las excedencias solicitadas para realizar actividades relativas al perfeccionamiento profesional, cuando éste no esté relacionado con su puesto de trabajo.

Cualquier excedencia especial será solicitada siempre por escrito con una antelación de al menos treinta días a la fecha de su inicio, a no ser por causas demostrables, de urgente necesidad, debiendo recibir contestación escrita por parte de la organización en el plazo de cinco días. Durante la situación de excedencia la vacante quedará cubierta por un/a suplente. Este/a cesará en su cometido, dando por finalizada su relación laboral en el momento de la incorporación del titular. Asimismo, el trabajador o trabajadora tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación profesional.

46. artikulua.—Borondatezko eszedentzia

Erakundearen etengabeko jardun aktiboan gutxienez urtebeteko antzinasuna duen langileak borondatezko eszedentzia eskatu ahal izango du. Eszedentzia hori ez da lau hilabetetik beherakoa izango, ezta bost urtetik gorakoa ere. Langileak ezin izango du beste eszedentzia bat hartu aurrekoa amaitu eta egiazko laneko hiru urte igaro arte.

Eszedentzia horrek ez du ezein ordainsarirako eskubiderik ematen eta denboraldi hori antzinasunerako ez da zenbatuko. Eszedentzia idazki bidez eskatuko da beti, hartu baino hogeita hamar egun lehenago gutxienez, salbu eta egiazta daitezkeen premia larriko kausak badira. Erakundeak ere idazki bidez erantzun beharko du bost eguneko epean. Eszedentzia-egoerak dirauen bitartean, lanpostu hutsa ordezkoko batek beteko du, gutxienez adostutako erreserba-denboraldian. Titularra lanera itzultzen denean amaituko da ordezkorearen zeregina eta bukatutzat emango da lan-harremana. Era berean, langileak lanbide-heziketako ikastaroak egitera joateko eskubidea izango du.

Lehenengo urtean langileak lanpostua gordeta edukitzeko eskubidea izango du. Eszedentzian dagoen langileari erakundearen dauen edo egon litezkeen kategoria bereko edo antzeko lanpostu hutsetan berriro ere sartzeko lehentasun-eskubidea gordeko zaio soilik.

47. artikulua.—Atxilotze-kasurako bermeak

Atxilotu dituzten edo askatasuna kentzen zaien langileei —edozein izanik ere denbora— lanpostua gordeko zaie, indarreko legediaren esparruan. Hortaz, hutsik dauden lanpostuetara itzuliko dira, eta lehen zitutzen lan-baldintzak errespetatuko zaizkie betiere. Artikulu honetan eta aplikatuko den legedian ezarritakoa hobeto betetzearren, lanpostu hutsak betetzeko ordezte-kontratuak egingo dira, atxilotze-egoerak edo aldi baterako askatasuna kentzen duen egoerak dirauen bitartean, edo egoera behin betiko konpontzen den bitartean.

48. artikulua.—Eszedentzia amaitutakoan lanera itzultzea

Hitzarmen honetan azaldutako eszedentzia-egoera guztien arau orokor gisa, eszedentziarako emandako denboraldia amaitutakoan langileak erakundera itzuli nahi badu, eszedentzia amaitu baino 30 egun lehenago eskatu beharko du baimena.

Eszedentzia amaitutakoan, langileak 30 eguneko epea izango du lanera itzultzeko. Langileak itzultzeko aukeratzen duen data eszedentziaren azken astean jakinarazi beharko dio erakundeari.

Erakundearen titularrak idazki bidez berretsi beharko dio langileari itzultzeko eskatutako data.

Eszedentziak dirauen bitartean, lanpostu hutsa ordezkoko batek bete badu, eta ordezkoko langileak amaitutzat eman beharko du lan-harremana langile titularra lanera itzultzen denean.

49. artikulua.—Aldi baterako ezintasuna

Aldi baterako ezintasunaren kasuan, kontratua eten egingo da eszedentziak dirauen denbora guztian, baita erakundeak Gizarte Segurantzari kotizatzeari utzi dion aldian ere.

Langileak bere ohiko lanbidea betetzeko guztizko baliaezintasun iraunkorraren, erabateko baliaezintasunaren edo baliaezintasun handiaren kasuetan, kontratua bi urtez etengo da egoera hori ebatzi zen datatik zenbatzen hasita, baldin eta kalifikazio-organoaren iritziz, langilearen baliaezintasun-egoera berriz aztertu behar bada, eta horrelakorik azaltzen bada administrazioaren ebazpenean.

Kontratua etenda dagoen denbora-tartean antzinasuna zenbatuko da.

Artículo 46.—Excedencia voluntaria

El trabajador o trabajadora con un mínimo de un año de ejercicio activo continuado en la organización, podrá solicitar una excedencia voluntaria de un período no inferior a 4 meses ni superior a cinco años, y no podrá optar a una nueva hasta transcurridos tres años de trabajo efectivo, después de agotada la anterior.

Dicha excedencia se entenderá concedida sin derecho a retribución alguna y dicho período no computará a efectos de antigüedad. Se solicitará siempre por escrito con una antelación de al menos treinta días a la fecha de su inicio, a no ser por causas demostrables, de urgente necesidad, debiendo recibir contestación escrita por parte de la organización en el plazo de cinco días. Durante la situación de excedencia la vacante quedará cubierta por un/a suplente, al menos durante el período de reserva acordado. Este/a cesará en su cometido, dando por finalizada su relación laboral en el momento de la incorporación del titular. Asimismo, el trabajador o trabajadora tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación profesional.

Durante el primer año tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo. Transcurrido dicho plazo conservará sólo un derecho preferente al reingreso en las vacantes de igual o similar categoría a la suya que hubiera o se produjeran en la organización.

Artículo 47.—Garantías en caso de detención

Al personal que sea detenido o privado de libertad, por el tiempo que fuere, se le reservará el puesto de trabajo en el marco de la legislación vigente. A tal fin, se entiende que se incorporará a la plaza que hubiera ocupado, respetándose en todo momento las condiciones laborales que tuviera antes. Para mejor cumplimiento de lo señalado en este artículo, y en la legislación de aplicación, los contratos que se utilizarán para cubrir vacantes, en tanto subsista la situación de detención o privación de libertad provisional, o se resuelva definitivamente la misma, serán la modalidad de contrato de sustitución.

Artículo 48.—Reincorporación por fin de excedencia

Como norma común a todas las situaciones de excedencias contempladas, si el trabajador o trabajadora desea incorporarse a la organización tras el agotamiento del período objeto de la excedencia, deberá solicitarlo en el plazo de 30 días antes de que finalice dicho período.

A la finalización del período de excedencia, el trabajador o trabajadora dispondrá de 30 días para reincorporarse a su puesto de trabajo. La fecha de reincorporación elegida por el trabajador o trabajadora deberá ser notificada a la organización a lo largo de la última semana del período de excedencia.

El titular de la organización deberá ratificar, por escrito, a dicho trabajador o trabajadora la fecha de reincorporación solicitada.

Si durante el tiempo de excedencia la vacante hubiera sido cubierta por un suplente, éste cesará en su cometido dando por finalizada su relación laboral en el momento de reincorporación de la persona titular.

Artículo 49.—Incapacidad temporal

En el supuesto de incapacidad temporal, el contrato permanecerá suspendido durante todo el tiempo que dure la misma, incluso en el período que la organización haya dejado de cotizar a la Seguridad Social.

En el supuesto de invalidez permanente total para la profesión habitual, invalidez absoluta o gran invalidez, el contrato permanecerá suspendido durante dos años a contar desde la fecha de la resolución que la declaró si, a juicio del órgano de calificación, la situación de incapacidad del trabajador o trabajadora va a ser previsiblemente objeto de revisión por mejoría que permita su reincorporación al puesto de trabajo y, así se indique en la resolución administrativa.

Durante el tiempo de suspensión se computará la antigüedad.

50. artikulua.—Erretiroak

Langileek nahitaez hirurogeita bost urterekin erretiratu beharko dute Langileen Estatutuko Hamargarren Xedapen Gehigarrian (uztailaren 1eko 14/2005 Legea) ezarritakoaren arabera, beren lanbide-taldea edozein izanik ere. Neurri horrek enpleguaren egonkortasuna eta behin behineko kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea bilatzen du, 17, 18 eta 19. artikuluetan adierazi den moduan. Salbuespen bakarra hirurogeita bost urte betetzean erretiratzeko beharrezkoak diren baldintzak ezin frogatu izatea da, esaterako kotizazio-gabealdia. Kasu horretan, erretiratzeko betebeharrak baldintzak betetzen diren arte atzeratuko da.

Erakundea eta langileak ados jarrita, langile guztiek, 55 urte betetakoan, beren lan-jarduera nagusia Hitzarmenean ezartzen den lanbide-kategoriarako ezartzen den lanaldiaren erdira murrizteko eskatu ahal izango dute eta gainerako lanaldia langile horien lanpostuarekin edo titulazioarekin bat datozen jarduerekin osatuko dute.

VI. TITULUA

GIZARTE HOBEEKUNTZAK

51. artikulua.—Laneko arropa

Erakundeek urtean bitan emango diete laneko arropa, betiere betetzen dituzten eginkizunen arabera premia dutenei. Erakundeak laneko arropa ematen ez badu, kontzeptu horrengatik urtero 100 euro ordainduko dizkio langileari.

52. artikulua.—Mantenua, ostatura eta bidaia-gastuak

Hitzarmen honen eraginpeko langileek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Jangelako eta sukaldeko zerbitzuak betetzen dituzten langileek mantenua jasotzeko eskubidea izango dute dagokien lan-jarduera betetzen duten egunetan, baldin eta otorduak eta eguneko lanaldia aldi berean badira. Terapia-komunitateetako langileek ere eskubide bera izango dute.

b) Erakundearen barneko langileek mantenurako eta ostaturako eskubidea izango dute.

53. artikulua.—Erantzukizun zibileko aseguruak

Erakundeek 300.300,00 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat izango dute.

54. artikulua.—Enpresaburuaren subrogazio-klausula

